

AMIANTOAREN BIKTIMENTZAKO KONPENTSAZIO FUNTSA

**Legebiltzarrean esku-hartzea
2012-03-27**

ELA

ELA Sindikatua amiantoaren biktimenezko konpentsazio-funtza eratzearen aldekoa da. Jakina den bezala, arazo sozial larrienetako bat da amiantoak eragindakoa, laneko hilkortasun-kausa nagusienetako bat baita. Ondorio larriak izaten ari da dagoeneko, eta aurreikusita dago ondorio horiek are okerragoak izango direla etorkizunean.

Hego Euskal Herrian, aurten, 14 pertsona hil dira amiantoaren ondorioz, eta heriotza horiek ez dira estatistika ofizial batean ere agertzen. EAEn, azken 30 urteetan, amiantoak 159 pertsonaren heriotza eragin du, 25,000 langilek arnastu dute gai toxiko hau eta eta pertsona hauen herena behar baino lehen hiltzeko arriskuan dago.

Arazoari eman beharreko erantzun politikoak arazo sozialaren pare egon beharko luke. Baina egoera hartatik oso urrun gaude: amiantoak eragindako pertsonak babesik gabe daude, erabat. Datu ofizialek errealitatearen parte txiki bat bakarrik erakusten digute, datuak oso azpitik daudelako.

Kalteen onarpenerako gaur egungo sistemak berandu konpentsatzen ditu amiantoaren biktimak, inoiz ez bada, eta oso prozesu neketsua da gainera, kaltetuek prozedura judizial luzeak jarraitu behar dituztelako.

Kompentsazio-funtza aipatu aurretik, arazoari aurre egiteko borondate politiko falta azpimarratu nahiko genuke. Argi dago gaur egungo sistema hobe daitekeela, eta Eusko Jaurlaritzak gaiarekiko erantzukizun argia duela. Esate baterako, Osalan erakundeak, Laneko Ikuskapen Sailak eta Osasun Departamentuak askoz ere gehiago egin dezakete, egiten dutena baino. Berrito diogu, borondate politikoa falta da, eta beharrezko giza baliabide eta baliabide teknikoak jartzea. Argi dago guzti hau gai hauetan aplikatzen ari diren aurrekontu-murrizketekin bateraezina dela.

Ilido beretik, ELAk eskaera hauek egiten ditu:

- a) Osalan erakundeak lanbide-gaixotasunak ikertzeko eskaerak azter ditzala, amiantoarekin zerikusia dutenak, bereziki. Ilido beretik, salatu nahi dugu Osalan irizpide murriztaile bat erabiltzen ari dela lanbide-gaixotasunen kausalitatea aztertzeko. Egiaztatu dugu patologia sufritzen duen

pertsonaren kontratu-egoeraren arabera kausaltasuna ikertzen dela edo ez, eta kausaltasun-txostena bakarrik Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak espresuki hala eskatu badu egiten duela.

Guztiz onartezina da hori, Osalan erakundeko zuzendariari berari jakinarazi diogun moduan, eta ez dator bat lanbide-gaixotasunak detektatzeko eta haiei jarraipena egiteko Osalaren "konpromiso sendoarekin".

- b) Sumatutako lanbide-gaixotasunen berri emateko komunikazio-sistemak nabarmen hobetu behar du. Osasun Sailaren inplikazioa ez da nahikoa. Osakidetzarekin lankidetzan, Eusko Jaurlaritzaren erregistroa zabaldu zen 2011n, eta amiantoaren irentsi duten 5.631 pertsonen kasuak biltzen ditu. Horietatik 4.226 langilek amaiera eman diote lan-bizitzari.

Datu horiek errealitatearen parte txiki bat besterik ez dira.

- c) Osalan erakundeak (dagokionean) eta Laneko Ikuskapen Sailak (Laneko Departamentuaren barruan dago) gai honek enpresetan behar duen jarraipena eta kontrola aurrera eraman behar dituzte. Gainera, prebentzio arloan araudia betetzen ez duten enpresei zigorrak jarri behar dizkiete, baita prebentzio-arloan praktika txarrak burutzen dituzten mediku- eta prebentzio-zerbitzuei ere. Zehatz-mehatz esateko, dagokion mutuari erantzukizunik ez igortzeko helburuz sumatutako lanbide-gaixotasunak ez jakinaraztea pertsekuzio-xedea izan behar da.

Azken finean, Eusko Jaurlaritzak konpromiso sendoagoa hartu eta lanbide-gaixotasunen aurkako borrokan gehiago eragin dezake, orokorrean, eta amiantoak eragindakoei, bereziki.

KONPENTSAZIO FUNTSA

Konpentsazio-funts ezberdinak daude, arrakastatsuak izaten ari direnak. Bi eredu azpimarratuko ditugu: frantsesa (FIVA) eta belgikarra (AFA). Aipagarriak dira baita ere eredu holandarra eta Britainiako Parlamentuak 2006an onartutako Konpentsazio Legea.

Sistema horiek sakon aztertu behar dira, eredu propioa eratzeko balio diguten elementuak identifikatzeko.

Esaterako, ELAren ustez, funtsa eratzeko oinarrizko elementu hauek hartu behar dira aintzat:

1.- Konpentsazio-funtsaren izaera. **Enpresen erantzukizuna.**

Konpentsazio-funtsera jotzeak ezin du inolaz ere enpresa salbuetsi prebentzio-arloan duen erantzukizunetik. Funtsa oso baliabide erabilgarria izango litzateke pertsona kaltetuak bere bizitza osoan enpresa ezberdinetan lan egin badu, eta zuzeneko erantzukizuna zehaztea zaila bada, edo gaixotasuna agertzen denean enpresa dagoeneko existitzen ez bada.

Konpentsazio-funtsa erabiltzea hautazkoa izan behar da, eta ohiko bide judizialarekin jarrai daiteke, kaltea osorik edo funtsarekin estali gabe geratu den partea ordaintzeko. Hala, Frantzia, amiantoaren biktima gehienei funtsaren bidez kalteak ordaindu badizkiete ere, Frantziako epaileek eta epaimahaiek 1.217 epai baino gehiago eman zituzten amiantoa irentsi zuten enplegu-emaearen erantzukizunari buruz, eta demanda 1.192 kasutan baietsi zuten.

Aipatu diren funts-ereduetara jotzeko ez da zertan enpresaren "errua" egiaztatu behar. Horrek ziurgabetasuna eta auzi-kostuak murrizten ditu; izan ere, pertsona kaltetuak epe jakin bateko kalte-ordainak bakarrik jaso ditzake (Frantzia, adibidez, sei hileko epean, kalte-ordainak jasotzeko eskaera egin denetik).

Kalteak ordaindu eta gero, funtsa kalte-ordainetan subrogatuko litzateke, kaltearen arduradunen aurka.

2.- Beste prestazio batzuekin batera ematea.

Lehen esan dugun bezala, funtserako errekurtsua bateragarria litzateke enpresaren kontrako erantzukizun zibilerako eskearekin, eta baita ere beste prestazio sozial mota batzuekin ere. Segurtasun-neurrien faltagatik emandako prestazio-errekarguak ez lirateke kendu behar, inolaz ere. (Gaur egun, jurisdikzio zibilean erantzukizun zibilaren kalte-ordainak bateragarriak dira Gizarte Segurantzaren prestazioekin eta errekarquarekin. Dena den, laneko jurisdikzioan prestazio sozialak deskontatzen dira).

3.- Funtsa hornitzeko errekurtsuak.

ELAk dio enpresa-ekarpenekin finantzatu beharko litzatekeela, eta zenbateko hori esleipen publiko batekin osatu, kalte-ordainei aurre egiteko.

Horixe da Belgikaren eredua, gobernu federalaren 10 milioi euroko esleipenarekin finantzatzen dena, urtero, eta baita kopuru bereko enpresa-kotizazioekin ere.

4.-Kalte-ordainen zenbatekoa eta legitimazio aktiboa.

Biktimentzako diru-kopuruak lotesleak eta nahikoak izan beharko lirateke kalte-galeren ordainketa bermatzeko.

Pertsona legitimatuak izan beharko lirateke amiantoaren ondorioz lanbide-gaixotasun aitortua duten pertsonak eta haien senideak.

Era berean, funtsak jarduteko nahikoa marjina izan beharko luke (adibidez, balorazio-komisio propioekin), amiantoaren irenstatu kalteak jasan dituzten eta Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren eskutik lanbide-gaixotasunaren aitortzea lortu ez dutenen kasuei ekiteko. Aintzat hartu behar da badiela patologia batzuk Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak lanbide-gaixotasun moduan erraz aitortzen ez dituenak. Pertsona horiek ezin daitezke babesik gabe utzi, eta konpentsazio-funtsera jotzeko eskubidea izan beharko lukete.

Azpitarratu ditugun aspektuek konpentsazio-funtsa izan beharko litzatekeenera hurbiltzen gaituzte, eta gure ustez aintzat hartu behar dira, amiantoaren kalteak jasan dituztenentzako konpentsazio-funts baten sorrera-hipotesian.

Edonola ere, garrantzia handiko gaia denez, ELAk uste du premiazkoa dela lanbide-gaixotasunen eta pertsona kaltetuen konpentsazio-bideei buruzko eztabaida soziala hastea. Debate horrek parte-hartze sozial handia izan beharko luke, eta ez litzateke amiantoaren ondoriozko lanbide-gaixotasunetara mugatu behar. Alderantziz, langileei erremediorik gabeko kalteak eragiten dizkieten beste lanbide-patologia batzuk jaso beharko lituzke.

ONDORIOAK

1.- Lanbide-profesionalak, orokorrean, eta amiantoak eragindakoak, bereziki, arazo sozial larria dira. Datu ofizialek ezkutuan jarraitzen dute eta ez dute errealitatea islatzen.

2.- Amiantoaren biktimak babesik gabe daude, erabat, gaur egungo sistemak ez baitie garaiz ordaintzen, ezta behar adina ere.

3.- Gaiari aurre egiteko premisa da benetan borondate politikoa egon dadila,

arazoa osotasunean aitortzeko, eta hari irtenbidea emateko. Ildo beretik, Eusko Jaurlaritzari exijitzen diogu dagokion erantzukizun politikoa hartu eta horren arabera jardun dezala; izan ere, gaur egun gaiarekiko duen konpromisoa ez da nahikoa.

4.- Amiantoaren biktimei kalteak ordaintzeko konpentsazio-funtsa nahitaezkoa da, batez ere langileak enpresa ezberdinetan lan egin badu, edo gaixotasuna eragin zuen enpresa dagoeneko existitzen ez bada.

5.- Badira beste herrialde batzuetan arrakastatsuak diren funts-ereduak. Ildo horretatik, eredu horiek astiro aztertu behar dira, ondorioak ateratzeko eta hasiera emateko konpentsazio-funts eredu propio baten osaerari buruzko debate sozialari.

6.- Konpentsazio-funts hori enpresa-ekarpenekin finantzatu beharko litzateke, bereziki, eta inoiz ez du enpresa salbuetsi behar prebentzio-arloan duen erantzukizunetik.

7.- Debate sozialak eta lanbide-gaixotasunen tratamendu politikoak amiantoaz gain honako gai hauek ere jorratu beharko lituzkete: prebentzioa, eta langileengan ondorio larriak eragiten dituzten beste lanbide-patologia batzuetarako konpentsazio-formulak.